

Gizarte-espazioaren eraikuntza. Europar etxebizitza sozialen historia laburra

Unai Fernandez de Betoño



Oraingo
BOE-politikak ulertze aldera
ezinbestekoa da iraganeko ahaleginak
ezagutzea, Europako testuinguru
gertuenekoak, bederen.

Gako-hitzak:
filantropia.
enpresa-paternalismoa.
infraetxea.
etxe-kolonia.
grand ensemble-a.
etxebizitza-poligonoa

Europako gizarte-espazioaren eraikuntzaren hastapenak aberats filantropo eta enpresaburu paternalisten artean eman baziren ere, XX. mendeko Ongizatearen Estatua delako antolakuntza-eredua izan da etxebizitza soziala politika-programa gisa sistematikoki implementatu duena. Eskuzabaltasuna eta gizarte-justiziaz gain, bestelako zioak ere egon izan dira, hala erlijio-doktrinamendua nola lan-etekinen optimizazioa. Osotasuna atzemanazina izaki, gizarte-etxebizitzaren historia laburra irudikatzen lagundu dezakete adibide esanguratsuen inguruan jarraian ematen diren zertzeladek.

1. XVI. eta XVII. mendeak: gizarte-etxebizitzak dirudunen filantropia gisa

Hastapenetako etxebizitza sozialak filantropia, limosna eta karitatearekin erlazionatuta egon ziren. Ez da kasualitatea lehen gizarte-guneok monasterio itxien antolakuntza antzeratu izana. Hesiz inguratutako esparruetan garatu ziren gehienak, erlijioso-ordenekin erlazionatuta baitzeuden. Gizarte-zerbitzua, hortaz, nolabaiteko doktrinamenduarekin nahasirik eman zen.

Alemaniko Augsburgeko *Fuggerei*-a oraindik indarrean dagoen munduko gizarte-etxebizitza multzorik zaharrena da (1). Fugger bankari-familia aberatsak sortu zuen 1514-1523 urteen bitartean, irudia nolabait zurutuz bere larruan gozoago bizi aldera. Egungo 60 m²-ko 147 apartamentuk osatutako esparru itxian ostatua hartzeko renanar florin bat —0,88 euro— soilik ordaindu beharra dago, oraindik ere, urteko errenta gisa. Betebarreko baldintzak, XVI. mendean ezarri ziren bertsuak: Augsburgen gutxienez bi urte bizi eramatea, zorrik gabeko txiroa izatea eta, jakina, katolikoa.

Almsouses delakoek osatu zuten baliokide britainiarra. 2.500 bat zeuden Erresuma Batuan (2), askok zutik dirautela oraindik ere. Londresko Mile End Road kalean 1695ean eraiki zen ezagunena, Trinity Almshouse, alegia, ustez Christopher Wren

(1) MOHOLY-NAGY, 1970.

(2) HALLET, 2004.


arkitektoaren diseinuari jarraiki. Augsburgeko gizarte-etxeen kasuan bezala, eginkizun ebanjelizatzailea tarteko, 28 etxeko multzoa otoitzerako kaperaren inguruan antolatu zen.

2. XVIII. eta XIX. mendeak: gizarte-etxebizitzak enpresarien paternalismo gisa

XVIII. mendearen bukaerako eta XIX. mendearen hasierako iraultzak ez zuen industria soilik goitik behera aldatu; hirien paisaia ere errotik irauli zuen. Giza migrazio-mugimendu handia gertatu zen, landatik hirira egoitza aldatu baitzuen nekazari eta abeltzain ugari. Londresko biztanleria, esaterako, XIX. mendeko bigarren erdian hirukoiztu egin zen. Pilaketa eta lan-egoera eskasa zela-eta, ondorio larriak jasan zituen hiri-gizartearen jende xumeenak; hainbeste, non langile-klasea edo proletalgora agertu baitzen.

Testuinguru ilun horretan infraetxea ugaritu zen, harik eta enpresari eta teoriko ezkertiar batzuek egoera latzaz jabetu eta irtenbideen bila hasi arte. Sozialismo utopikoa esan zaio hemeretzigarren mendeko industrializazio kapitalistaren aurkako ideia berritzaileen multzo horri. Henri de Saint-Simon, Robert Owen, Charles Fourier, André Koechlin, Titus Salt eta Jean-Baptiste André Godin izan ziren esanguratsuenak, komuna sozialistaren eta kooperatibismoaren gurasotzat jo izan direnak. Haiek sustatutako komunitate guztiak ez ziren paperean gelditu, Fourierren *Phalanstère* habitat kolektibo ameslariarekin gertatu bezala. New Lanark (Glasgow, Eskozia, 1815), Saltaire (City of Bradford, Ingalaterra, 1850), Mulhouseko langile-hiria (Frantzia, 1853) eta *Familistère* (Guise, Frantzia, 1859) izeneko egitasmoa, besteak beste, errealitatean hezurramitu ziren (3). Komunitateok kidesunetik bazuten, hots, lana, etxebizitza, hezkuntza eta aisiaren ulerkera integrala. Hala ere, enpresarien ekimenok haien langileei etxebizitza duinak eskaintzen bazizkiten ere, ez da saihestu behar paternalismo horrek lan-etekinen optimizazioa ere bilatzen zuela finean.

(3) LOPEZ DIAZ, 2003.




Augsburgeko Fuggerei karitate-multzoa, 1514-1523.




Londresko Trinity Almshouse. Ustez, Christopher Wren, 1695.



Robert Owenen New Lanark kotoi-lantegiaren hiria, Eskozia. 2.500 biztanle zituen XIX. mendearen hasieran.



Hegoaldeko plana (Berlage, 1917-1921); Amsterdamgo eskolaren esku hartze-eremua.



Guiseko (Frantzia) familisterioa. André Godin, 1860-1880.

3. XX. mendea: gizarte-etxebizitzak politikarien programa gisa

XX. mendearen hasieran infraetxeekin bukatzeko eta gizarte-etxeak sustatzeko lehen lege eta instituzioak agertu ziren. Biztanleria-dentsitate handieneko herrialdeek hartu zuten aurrea, euren etxebizitza-arazoa ebazte aldera. Haatik, 1948. urtera arte ez zen etxebizitza eskubide gisa aitortu, Giza Esku-bideen Aldarrikapen Unibertsalaren 25. artikuluan.

3.1. Etxebizitza-politiken aitzindariak

Herbehereek, Europako herrialderik dentsuena izaki, gizarte-etxebizitzaren politika aitzindarietako bat izan zuten. 1902an jada *Woningwet* delako legea indarrean zuten, non etxebizitza-politika hirigintza-plangintzari lotzen baitzizaion. Halaber, etxeei gutxienezko bizigarritasun-baldintzak ezarri zitzaizkien —higiene eta segurtasunaren izenean— eta lukuru-asmorik gabeko etxe sozialen sustapena diru publikoz lagundu zen. Horrela, kooperatibismoak sekulako indarra hartu zuen, alokairuzko gizarte-etxebizitzaren inguruan, batik bat (4). Testuinguru horretan garatu zen *Amsterdamgo Eskola* gogoangarria —Michel de Klerk, Johan van der Mey eta Piet Kramer arkitektoek osatua, besteak beste—, engaiamendu soziala eta kalitate oneko arkitektura bateragarriak direla erakutsi zuena.

Frantzian —*Habitations à Bon Marché* (HBM) delakoen bidez— eta, batez ere, Ingalaterran —*London County Council* agintetza erakundearen eskutik— sortu ziren infraetxeekin bukatzeko beste hainbat ekimen aipagarri, gehienak bizitzaren garbitasunarekin lotuak. Mundu Gerra osterara arte, ordea, ez ziren gizarte-etxebizitzak sustatzeko politika eraginkorrak ganoraz antolatuko.

(4) MOYA, 2008.


3.2. Lehen Mundu Gerra ostea

Bi Mundu Gerren arteko egoera atsekabegarriaren aurrean, hainbat hiriren berregite-prozesuarekin batera, Europako estatuak esku-hartze irmoz ekin zioten etxebizitza sozialen eraikuntzari. Zereginotan sozialdemokraziako Alemaniako Weimarko Errepublika (1919-33) eta Austriako Lehenengo Errepublika (1919-38) nabarmendu ziren, gerran kaltetuenetakoa izan baitziren. Objektibotasun Berriaren garaia izaki (*Neue Sachlichkeit*), bizitza minimoaren neurria ikertu zen, baita sakon ikertu ere, *Existenzminimum* delako saioaren inguruko eztabaidarekin. **Estandarizazioa eta serie-fabrikazioa sustatu ziren, hogeiko hamarkadan langileentzako etxeak barra-barra egite aldera.** Berlinen edo Frankfurtan, kasu, 50.000 etxebizitza baino gehiago eraiki ziren 1925 eta 1933 urteen bitartean. Viena *Gorrian*, halaber, 60.000 bizitza egin ziren garai bertsuan. Aipagarria da oso bai Alemaniako dentsitate ertaineko *siedlung* (establimentu) delako etxe-kolonia modernoak, bai Vienako dentsitate altuko *gemeindegbau* (udal-eraikin) edo *hof* (patio) delako etxe-uharte handi eta patiodunak, biak ala biak, sustapen publikokoak izan zirela oro har. Apartamentuak —oraindik ere— alokairukoak dira eskuarki. Ziur asko Frankfurtekoa izan zen adibide garrantzitsu eta helduena, Nidda ibaiaren bazterrean bertan uztartu baitziren modu integrarean gizarte-etxebizitzaren politikak —lurzoruaren jabegoa udalarena zen—, hirigintza-antolakuntza osoa —Ernst May udal-arkitekto emankorrena—, arkitekturaren diseinu eta eraikuntza industrialia, eta altzarigintza berritzailea (5).


3.3. Bigarren Mundu Gerra ostea

Europa are suntsituago geratu zen Bigarren Mundu Gerran. Larrialdi-egoeraren aurrean herritar gosetiak etxebizitzaz fite hornitu beharra zegoen, Alemanian, batez ere. *Baby Boom* delako jaiotza-tasaren ezta ezta zereginotan lagunduko.

(5) PANERAI, 2004.



Nidda ibaiaren bazterreko Römerstadt siedlung-a. Frankfurt, Ernst May, 1927-1928.



Vienako George Wahington hof-a. Karl Krist eta Robert Oerley, 1927-1930.



Grindelberg auzoko Gründelhochhäuser multzoa. Gaur egun oraindik dirau zutik.

Urgentziaz, hortaz, bizitzen ekoizpen masiboa kausatu zuten, eta Mugimendu Modernoaren hirigintza-teoria erradikalek —Atenasko Agiria 1942an argitaratu zuen Le Corbusierrek— arrakasta handia lortu zuten. Auzoen biztanleria biderkatu egin zen, baita eraikinen batez besteko garaiera ere. Altuera handiko bloke lineal luzeen garaia izan zen, ohiko hiri-egituraren kalte-tetan. Errusiar eraginpeko ekialdeko Hanburgon, esaterako, momentuko hirigintza-sentsibiltate ezaren adierazgarri bilakatuko zen proiektua eraiki zen 1949-56 urteen bitartean, hots, *Gründelhochhäuser* izeneko etxe-multzoa. 12 bloke irekitan 2.122 apartamentu sartu ziren —batzuk ez ziren 16 m²-ra ailegatzek—, ia guztiak Administrazioak diruz lagundutako alokairukoak.

Frantzian ere eraiki ziren alokairuko gizarte-etxebizitza masiboak. Helburu horrekin kaleratu zen 1958ko abenduan dekretu bat, non *Zone à Urbaniser en Priorité* (ZUP) eremuak definitu baitziren, 60ko hamarkadako *grand ensemble* ezagunen garapenak ahalbidetuko zituztenak. Hirien aldiriak —lurzorurik merkeena— gizadasunik gabeko hormigoï aurrefabrikatuzko bizitegi errepikakorrez bete ziren, etxebizitza sozialen kopurua biderkatuz, baita integratu gabeko ghettoen sorrerak nahigabe sustatuz ere (6).

Ipar Euskal Herriko ZUP nabarmenena Baionako Santa Gurutzekoa da, Marcel Breuer arkitekto ospetsuak 1963-70 urteen bitartean diseinatu eta eraikia. Proiektu osoa eraiki ez izanagatik —15.000 baionar jaso behar zituen—, erraldoia da egindako 1.100 etxebizitza jasotzen dituen *grand ensemble*

modernoak. Auzo estigmatizatua izatetik Baionako arkitektura-ondare izatera igaro da egun.

Espainiako baliokideak 60ko hamarkadako poligonoak izan ziren, 1956ko Lurzoruaren Legearen gerizpean eraikiak. Modu bateratuen diseinatu, kudeatu eta eraikitako auzo monotonoak ziren; lehengo hiriarekiko autistak, hein handi batean. Horietan, Frantziako *grand ensemble*-etan baino zuzkidura publikoen gabezia handiagoa jasan zen, ganorazko eraikuntza eta urbanizazio-lanen urritasunarekin batera. Poligonoek etxebizitza sozialen eskaria nolabait ase zuten, kalitatean baino gehiago, kantitatean; Madrilgo biztanleria, kasu, hirukoiztu egin zen 1940-70 urteen bitartean, inguruan —eta bereziki hegoaldean— sortutako satelite-herrixka sozial berriei esker. Etxeen sustapena, halaber, gero eta gehiago laga egin zitzaion sektore pribatuari, zeina mozkinen baino ez baitzen arduratu. Franco-ren azken garaiko garapenak ekonomikoaren ikur bilakatu ziren bizitegi-poligonoak.

Hego Euskal Herriko hiri gehienek periferietan ditugu 60ko hamarkadako poligono garapenezaleen adibideak, horietariko asko *Obra Sindical del Hogar* erakundeak eginak. Bilboko Otxarkoaga, Gasteizko Zaramaga, Donostiako Bidebieta edo Iruñeko Donibane eraiki ziren garaiko etxebizitza sozialen eskaria asetzeko. Hasierako zerbitzu eta ekipamendu publikoen gabezia konpondu egin zaie hein handi batean, baina etxe gehienek oraindik ez dute igogailurik. Horrenbestez, auzoon eraberritze prozesu luze eta garestiari ekin beharko zaio orain.

(6) SOLÁ-MORALES, 2008.



Bordeleko Cité du Grand Parc.
Jean Royer, 1957.



Zofio absortzio-herrixka. Utera, Madril: Miguel Fisac, 1955-60. 80ko hamarkadaren hasieran eraitsi behar izan zuten.



3.4. Azken hamarkadak

Gizarte-etxebizitzetarako sarbidea duten hiritarren espektroa nabarmen zabaldu da Europan azken hamarkadotan. XX. mendearen hasierako Espainiako *Ley de Casas Baratas* moduko legeak, azken gizarte-mailentzat bereziki sortuak, klase ertainetara pixkanaka egokitu dira (7). Babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenak, gainontzeko konpetentziek bezala, deszentralizazio orokor bat jasan du, tokiko beharretara egokitze aldera. Eskualdeek dute gizarte-etxebizitzaren sustapenaren ardura, oro har, estatu zentralak gidalerro nagusiak ezartzen badituzte ere.

Azken urteotako **joera politiko neoliberalak eragin zuzena eduki dute etxebizitzaren erregimenean ere bai**. Alokairu sozialeko etxebizitzaren ehunekoia —Espainian ia ezdeusa dena— gelditu egin da, eta, zenbait kasutan, baita jaitsi ere. Herbeheretan, kasu, non alokairu sozialeko erregimenak ibilbide luzea egin duen, elkarre sustatzaileak bizitza-parkearen zati txiki bat saldu ahal izan dute, euren aurrekontuak onbideratzeko eta eskaintza dibertsifikatzeko (8).

Euskal Herrian, gainerako Europan legez, alokairu sozialaren eredia sakon aztertu eta gauzatu beharko da etxebizitzaren arazoa modu justu eta iraunkor batean ebatziko bada. Izan ere, ulertu beharra dago funtsezko maila batean bizitza ez dela negozio-trukerako ondasuna, baizik eta erabilerarako behar elemental. Osterantzean, etxea exijitu daitekeen oinarrizko eskubidea dela aitortuta —Frantziako Gobernuak 2007an onartu

bezala—, bizitza duinerako erreklamazioak laster ikusiko ditugu epaileen aurrean.



4. Bibliografia

- HALLET, ANNA. *Almshouses*. Princes Risborough: Shire, 2004.
- LOPEZ DIAZ, JESUS. “La relevancia de la vivienda social en el origen de la arquitectura contemporánea”. *Espacio, tiempo y forma. Serie VII, Historia del arte*. (2003), 16. zenbakia: 179-198. or.
- MOHOLY-NAGY, SIBYL. *Urbanismo y sociedad. Historia ilustrada de la evolución de la ciudad*. 1. argitalpena. Bartzelona: Blume, 1970.
- MOYA GONZALEZ, LUIS (Argit.). *La vivienda social en Europa. Alemania, Francia y Países Bajos desde 1945*. 1. argitalpena. Madril: Mairca Libros, 2008.
- PANERAI, PHILIPPE R. [et al]. *Urban forms. The death and life of the urban block*. 1. argitalpena. Oxford: Butterworth-Heinemann, 2004.
- SAMBRICIO, CARLOS (Argit.). *Un siglo de vivienda social. 1903-2003*. 1. argitalpena. Madril: Nerea, 2003.
- SOLÀ-MORALES RUBIÓ, MANUEL. *Hiri-bazkunde motak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2008.

(7) SAMBRICIO, 2003.

(8) MOYA, 2008.